

Euskal Herrian gutxieneko soldata finkatzeko irizpideak

***Gutxieneko soldataren
igoerak izango lituzkeen
ondorioak***



www.ela.eus



EUSKAL SINDIKATUA

Gutxieneko soldataren taxuzko igoerak ondorio ugari ditu, lanaren eta kapitalaren artean errenta hobeto banatzea eragin dezaketenak. Txosten honen asmoa da Hego Euskal Herrirako (HEH) gutxieneko soldata bat finkatzea, zeina, batetik, nahikoa izango den eta, beraz, benetan gutxienekoa, langile-klasearen bizimodua hobetzeko: bestetik, klase horrek berak sortutako gainbalioaren birbanaketa hobe ekarriko duena, errentaren banaketa egokiagoa sustatuz.

Gutxieneko soldata bat finkatzeak, etengabe handitzeko joerarekin, hainbat alderdi ditu, eta honako ondorio nagusiok:

- Negoziazio kolektiboan ezarritako erreferentziarik ez duten jarduera eta sektore guztietan soldata finkatzea. Langileen biziaren erreprodukzioa ziurtatzeko soldatak maila nahikoa izan behar du, baita gutxienez bere menpeko pertsona batentzat ere, nahiz eta menpeko pertsona gehiagori mantentzeko aukera eman beharko liokeen.
- Beharginen lan- eta bizi-baldintzetan eragin positiboak dakartza mekanismo honek; pobreziaren atalase azpitik dagoen jende kopurua gutxitzen du, eta genero, adin zein jatorriagatiko soldata-arrakala murriztu.
- Sortutako gainbalioa birbanatzeko tresna bat da eta errentaren birbanaketa hobe bultzatzen du.
- Euskal Herriko ekonomian, non eskariak eta soldatek jarduera finkatzerakoan zeresan handia duten, hazkunde orekatuagoa eragingo luke, zikloen gorabehera leunagoarekin. LGSaren igoerak kotizazio sozialen eta PFEZaren bidez sarrera publikoak handituko lituzke, baita beste zerga batzuen bilketari esker ere, eskari agregatuaren balizko igoera medio.
- Genero ikuspuntutik eragin positiboa izango luke, izan ere, soldatarik apalenak sektore feminizatu eta prekarizatueta pilatzen baitira.
- Eredu produktibo eta industrialaren aldaketa laguntzeko eta kapitala diziplinatzeko mekanismoa izan liteke, enpresak behartu egingo bailituzke aldaketa tekniko egitera eta I+G+B sustatzera, produktu zein zerbitzuen aldetik, baita prozesuetan eta kudeaketan ere, efizientzia eta produktibitatea hobetze aldera, garrantzia emanez lan-kostuei (orduko soldataren igoera) eta lanari (lanaldia murriztu eta lanpostu kopurua handitzea).

Irizpideak, gauzatzeko bideak, metodologia eta hautatutako datuak

Gutxieneko soldata legez finkatzea izaten da modurik ohikoena (LANEko kide diren herrialdeen %90ak hala erabakitzen du); aldiz, %10ak Negoziazio Kolektiboko egituren bidez egiten du (esaterako, Iparraldeko herrialdeak). Metodologia oso ezberdina izan daiteke, baina azken urteetan konbergentzia ari da gertatzen: joera da kalkulua egitea herrialde bateko gutxieneko soldataren eta batez besteko soldataren edo erdiko soldataren arteko erlazioan oinarrituta; lehenengoa bigarrenaren portzentajea izaten da. Europako Eskubide Sozialen Kartak gomendatzen du gutxieneko soldata izan behar dela herrialde bakoitzeko batez besteko ordainsariaren %60tik gorakoa. Alabaina, honek esan nahi du gutxieneko soldata herrialdeko soldata-masaren araberrakoa izango dela, beste faktorerik ez dela aintzat hartzen; baztertu egiten dira beste adierazle batzuk, adibidez egungo egoeran enpresak metatzen ari diren eta markak hausten dituzten etekinak.

Euskal Herrian LGS finkatzeko arazo nagusi bat da eremu horretako eskuduntzarik ez dagoela, euskal errepublika independente baten garapen prozesurik ezean. Oraingoz HEHn LGS bat gauzatzeko bideak hauek izango lirateke:

- LGS autonomiko bat finkatzeko aukera emango lukeen Langileen Estatutuaren (L.E.) aldaketa, eta lege autonomikoan txertatzea LGS finkatzeko aukera kontratazio publikoan.
- L.E.ko 83.3 artikulua arabera patronalarekin adostu beharreko gai konkretuei buruzko Lanbidearteko Akordioa.
- Sektore pribatu nahiz publikoko lantoki, enpresa eta sektoreetako Negoziazio Kolektiboaren bidez.

Haatik, oraingoz LGSaren zenbatekoa espainiar Estatuko legeak finkatzen du. Azken sei urteetan %54 handitu da, gaurko zenbatekoraino: 1.134 euroko 14 paga. Hau, ordea, ez da nahikoa gure lurraldeko errealitaterako; areago azken urteetako inflazioak dakarren erosahalmen galera eta soldaten devaluazioa medio. Ez dela nahikoa adierazten du, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak tarteka plazaratzen duen Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkestak (PGDI). Azken edizioak (2022) zioen pertsona batek ongizaterik ez duela izango hilean 1.356 euro garbiko atalasetik behera (gutxi gorabehera 1.654 euro gordin).

PGDI sarrerak 12 paga	2004	2008	2012	2014	2016	2018	2020	2022
Batez bestekoa <64	1.036	1.210	1.182	1.134	1.174	1.273	1.360	1.356
Gordina gutxi gorabehera	1263	1476	1442	1383	1433	1553	1659	1654
Estatuko LGS (gordina)	573	700	748	753	764	858	1.108	1.166

Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (2004, 2008, 2012, 2014, 2016, 2018, 2020 eta 2022) eta INE.

Gure iritziz adierazle batzuek aukera eman dezakete soldata-masaren banaketa hobea egiteko eta kapitala-lana erlazio hobea izateko, finkatzeko irizpide bakartzat soldata maila derrigor hartu gabe. Honegatik proposatzen da gutxieneko soldata finkatzeko erreferentzia-adierazle gisa biztanleko BPG nominala hartzea (PIBnpc). LGS finkatuko balitz BPGaren proportzio baten baitan langile orok gutxienez jasoko luke gizartean sortu duen balioagatik ehuneko kopuru bat. Horrenbestez, zenbait adierazlek -esaterako produktibitatearen hazkundera, enpresen irabazi edo mozkinak- gutxieneko soldatengan eragin positiboa izango lukete eta, zeharka, soldata guztietan.

Proposatzen da LGS finkatzea biztanleko BPG nominalaren %65ean. Honen arabera lanaldi osoa izanez gero 2024an LGSa 25.130 euro gordinekoa litzateke, hots, hilean 1.795 euroko 14 paga, PGDIari buruzko nahikotasun irizpidea betez, eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, urte hartako lanaldi osoko soldatapeko langileen %33,5ri eragingo lioke, baita lanaldi partzialeko soldatapeko langileen portzentaje handiago bati. Hau da, euskal langileen heren bat baino gehiagori, 300.000 langile ingururi. Gutxieneko soldata hau Belgika eta Alemaniakoaren artean legoke.

	2021	2022	2023	2024	2025
		HEH	HEH	HEH	HEH
%65,0	1.508	1.635	1.723	1.795	1.818

Kontutan izanik estatuko eta eskualdeko kontabilitateko datuak noiz izaten diren eskura, proposatzen dugu LGS urtero martxoan finkatzea, urte bereko urtarrilerainoko atzera eraginarekin, aurreko urteko azken hiruhilekoko aurreikuspenak oinarritzat hartuta. Haatik, datuak ez lirateke itxiko bi urte igaro arte eta, horregatik, konpentsazio mekanismoak ezarri behar dira BPGaren datua eguneratzearekin lotuta.

Erregistro Merkantilean dauden 2023ko datuekin, LGS Hego Euskal Herriko enpresen %70,69 ordainsariaren azpitik legoke. 2024an, enpresen 2023ko gastu-egitura kontutan izanik (hauek dira txostena egin den unean eskura zeuden azken datuak), enpresa kopuru hori murriztu egingo litzateke, %67,71 izateraino. Soldata handienak ordaintzen dira metalgintzan, industria farmazeutikoan, industria kimikoan, automobilgintzan, papergintzan eta mineral ez-metalikoen eremuan, ondorioz, sektoreotan proposatu den LGS igoerak ez luke urteko langile-gastuaren hazkunde handirik ekarriko; beraz, ez lioke kalterik eragingo enpresaren bideragarritasunari, lehiakortasunari, ez eta inbertsiorako soberakina sortzeko aukerari ere; ez eta sektore esportatzaileari ere.

Aitzitik, soldata txikiak ordaintzen diren enpresak batik bat zerbitzuen sektorekoak dira, zehazki merkataritzakoak, zaintzetakoak eta industriarentzako zerbitzu osagarriak ematen dutenak, baina baita nekazaritzakoak eta elikagaien industriakoak ere, non langileen %30ren eta %40ren arteak diharduten.

LGStik beherako soldatak batez ere zerbitzuetako enpresetan ordaintzen direnez, proposatzen den igoerak inpaktu positiboa izango luke genero ikuspuntutik ere. Zerbitzu-sektoreko soldatapekoak batik bat emakumeak baitira. Bada, jakinik emakumeek dituztela lan prekario gehienak zerbitzuen eta zaintzaren sektoreetan, LGSren igoera handi batek zeharo murriztuko luke emakumeek lanean pairatzen duten prekaritatea eta diskriminazioa, eta genero-arrakala ere gainditzen lagunduko luke (hau %22koa da).

Gauza bera esan liteke migratzaileei buruz (bereziki emakumeei dagokienez). Gehienek zerbitzuen eta zaintzaren sektoreetan dihardute, eta migratzaile ez direnak baino sarrera askoz kaskarragoak dituzte. Gipuzkoako Ogasunaren datuen arabera, migratzaileen batez besteko soldata 16.328 eurokoa izan zen (lanaldi guztietan, ez-migratzaile batek jaso zituen 29.406 euroak baino %44 gutxiago). Horregatik, proposatutako LGS igoera oso lagungarria izango litzateke jatorriagatik gertatzen diren ezberdintasunak leuntzeko.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA